

VULTOURIS IBILBIDEA: Iturberro - Sielva (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
ERRAZA



Irunberrietik bertatik abiatzen da ibilbidea, pilotalekutik hurbil. Zaraitzu ibaiaren gaineko ahuntzen zubia igaro eta gero, ezkerraldera biratuko dugu; arroilara doan bide seinalizatua utzita, Zaraitzu ibaiaren ezkerreko ertzetik doan bidexka hartuko dugu. Bidexka hori Irunberriko kanpinaren aparkalekuan bukatzen da; igerilekuetatik barna Sielvara doan asfaltozko bidetik jarraituko dugu.

IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 1,44 km
Gutxieneko altituda: 428 m
Gehieneko altituda: 467 m
Gehieneko desnibela: 39 m

Centro de Interpretación de las Foces
31440 LUMBIER (Navarra)
Tel.: (+34) 948 880 874
cinlumbi@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1761546>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net



Foto: Edu Primo

Sielvatik aurrera pista bakarra dago, eskuinaldera biratu ondoren Arbaiungo arroilara eramanen gaituena, Zaraitzu ibaiaren meandroen eta San Adriango Harkaitzen Natur Erreserbaren artean –Arbaiungo arroila ikusiko dugu bide osoan zehar–. Hortik aise ikusten ahal dira, albo batean, harkaitzetan bizi ohi diren hegaztiak: sai arrea, sai zuria, bele txikiak...; eta beste alboan, ordea, soroetan eta ibai-ertzetako basoetan bizi direnak ikusteko aukera izanen dugu.

San Gregorio dorrea, ibaiaz bestaldean, eta San Adriango azken harkaitzen hegalean azpian dauden zereal-soro batzuk aurkituko ditugu ibilbidearen bukaeran; hortik, etorritako bide beretik itzuliko gara Irunberriaraino.

GESTIÓN AMBIENTAL
DE NAVARRA S.A.



hoya de huesca
Comarca Hoya de Huesca • Plana de Uesco

FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL - EFA 04/06

